

«ESPERO DUT HIZKUNTZA NORMALKUNTZARAKO LEGE BERRIA MARTXAN IPINTZEA, 14 URTE HAUETAKO AKATSAK KONPONTZEKO»

Joaquim Arenas eta Maria Areny-rekin elkarrizketa
Lore Erriondo

Galdera: Zer eskumen ditu SECEk (Kataluniako Hezkuntza Sistema) hizkuntz normalkuntzaren eremuan?

Joaquim Arenas: Beharrezko eskumen guztiak ditu, honako hauek, esaterako: irakasleen prestakuntza, irakasleen esleipena eta zentroetan hizkuntza proiektuen ezarpena irakaskuntza guztia katalaneraz egin dadin; hain zuzen ere, hizkuntza bera irakatsi nahi da, hizkuntza ikaskuntza egin nahi da, eta, era berean, katalana erabili nahi da irakasteko. Honek ez dauka zerikusirik gaztelania ongi ez ezagutzearekin. Kataluniako eskolako hezkuntza-kontzeptua, haur guztiei aukera berdina eskaini nahi dizkien pedagogi proiektua da. Instrumentu berdinak eman nahi zaizkie maila bereko bizitza soziala izan dezaten, inortxo ere diskriminatu gabe kultur edo hizkuntza arrazoiak direla kausa. Pedagogi proiektu honekin, eta, Hizkuntz Normalkuntzaren Legeari jarraiki (Hizkuntza Normalkuntzaren Legeak katalana irakaskuntzaren berezko hizkuntzatzat jotzen du), hezkuntza katalanez sustatzen da beti; nolana ere, 3 eta 16 urte bitarteko haur eta gaztetxoei eragiten dien hezkuntza-erreformaren bidez, irakaskuntzan katalana erabiliko da, oro har, eta, hori, noski, aurre-rapauso oso garrantzitsua da.

Galdera: Horretarako duzue normalkuntza-zerbitzua deritzona.

J.A: Katalanaren irakaskuntza-zerbitzua daukagu. Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Orokorrek katalana erabili dadin, teknologia berri eta media guztietan sar dadin ahaleginak egiten ditu. Irakaskuntzaren eta hezkuntzaren eremuan, berriz, Conselleria edo Departament d'Enseignement izenekoak zerbitzu bat du, eta, zerbitzu horren bidez, arauen aplikazioa koordinatzen du; horretarako, irakaskuntza-ikuskaritzaren eta Hobe-kuntza Zuzendariordetza Orokorren laguntza dauka. Zerbitzu hau dekretu bidez ezarritako funtzioak koordinatzen ahalegintzen da.

Galdera: Nolakoa da katalanaren estatusa hezkuntza-sistemari dagokionez?

J.A: Egia esan, katalanaren estatusa aldatu egin da hezkuntza-sistema berriaren ondorioz. 1983. urtetik, jada, Hizkuntza Normalkuntzaren Legeak dioenez, lurraldeko berezko hizkuntza gisa erabiliko den katalana, hezkuntzan erabiliko den hizkuntza izango da, pixkanaka erabiltzen joan behar dena, gainera; horrela, bada, legea indarrean jarri zenean, katalanez bi gai eman behar ziren, gutxienez, katalana irakaskuntzan derrigorrez eman beharreko gaia izateaz gain (lehenagotik ezarrita zegoen legea da hau, eskumenak transferitu zirenekoa, hain zuzen). Gauzak horrela, zentroak pixkanaka-pixkanaka katalana komunikazio-hizkuntza gisa erabiltzen hasiko dira, Lehen Hezkuntzan Bigarren Hezkuntzan baino lehenago. Ildo beretik, esan beharra dago hezkuntza-sistema berriak aurrerapauso nahikoa garrantzitsua eman duela Kataluniako hezkuntza-sistema arautzen duen dekretua ezartzerakoan; dekretuak, hain zuzen ere, zera dio: Kataluniako berezko hizkuntza katalana denez, bera izango dela komunikazio zein ikaskuntza hizkuntza. Une honetatik bertatik, beraz, arautegiak dio katalana dela hezkuntzaren berezko hizkuntza eta normalean erabiliko den hizkuntza. Sistema berrian erabat ezarri da katalanera Lehen Hezkuntzan: 2.397 eskola daude, eta horietako %68k katalanez irakasten dute; halaber, %14 eboluzio-prozesuan daude sartuta, hau da, eskola horietan urtero ezartzen dira eredu elebidunak, eta, horrela, derrigorrezko irakaskuntza bukatzen dutenean katalanizatuak egongo dira.

Hezkuntza-sistema berria ezartzen ari den heinean, katalana elkar harremanetarako normalean erabiltzen ari den hizkuntza da; eta, gaztelaniaz irakasten duten %5 eskola egonkor daudela diogunean, eskola horiek, gutxienez, bi gai katalanez ematen dituztela esan nahi dut. Horixe bera seinalatzen zuen, jada, Hizkuntza Normalkuntzarako Legeak.

Benetan azpimarratu eta nabarmendu behar dena zera da: haurrek katalana gero eta gehiago erabiltzen badute ere, horrek ez diola inoiz kalitate-rik kendu gaztelaniari. Hezkuntza Sailak Katalunian egiten dituen probetan, katalanek gaztelaniaren erdi mailako ezaguera baino handiagoa dute, eta, oro har, oso ongi menperatzen dute gaztelania. Katalunian dagoen arazoa ez da haurrek gaztelaniaz ez dakitela; arazoa bestelakoa da: gaur egun badira Katalunian katalanez ez dakiten eta, agian, inoiz jakin-

«SECek (Kataluniako Hezkuntza Sistema) eskumen guztiak ditu: irakasleen prestakuntza, irakasleen esleipena eta zentroetan hizkuntz proiektuen ezarpena irakaskuntza guztia katalanera egin dadin»

«Kataluniako eskolako hezkuntza-kontzeptua, haur guztiei aukera berdinak eskaini nahi dizkien pedagogi proiektua da. Pedagogi proiektu honekin, eta Hizkuntz Normalkuntzaren Legeari jarraiki, hezkuntza katalanez sustatzen da beti»

go ez duten haurrak; horrela, diskriminazio bat dago hizkuntza dela medio, halako marginazio bidegabe bat, hain zuzen. Eskolak, horrenbestez, haur guztiak bildu behar ditu eta denei aukera berak eman behar dizkie; oso kontuan hartu behar da hori, oinarri pedagogikoa da. Une hauetan, zuzenketa-elementuak, oro har (noizbehinkako adibideak ere egon daitezke), katalana jakin dezaten ipini behar dira, izan ere, batzuetan gaia desitxuratu egiten da eta.

Datuei so eginez gero, eskolen %68k klaseak katalanez ematen dituela esan dezakegu; halaber, Lehen Hezkuntzan dauden 681.000 ikasleetatik, %81 katalanez hezi da; gainerako %18k katalanez eta gaztelaniaz jasotzen dute heziketa, eta eskola elebidun ebolutiboak edo egonkorak dira. Horiek guztiak emaitza osoak dira.

Sare pribatuari dagokionez, ikasleen %75k irakaskuntza katalanez jasotzen duen bitartean, sare publikoan %87ra igotzen da kopurua; beraz, orotara, ikasleen %81k ikasten du katalanez. Sare publikoan, gainera, katalanezko irakaskuntza 5 puntu igo da azken 3 urtetan.

Galdera: EAEn eta Nafarroan eskoletako euskalduntze-prozesua hizkuntza ereduaren bitartez egiten da. Nola burutzen duzue katalanizazio-prozesua irakaskuntzan?

J.A: Katalunian eredu bakarra daukagu; eredu bakarra da bai ikasle guztientzat bai ikastetxe guztientzat; beraz, ezarritako hezkuntza-kontzeptuak, Kataluniako hezkuntza-ereduaren kontzeptualizazioak «Kataluniako eskola» izena du. «Kataluniako eskola» honek hizkuntza eredu berezko bat du: hizkuntza ikasi eta irakasteko hizkuntza eredu eleanitza. Hizkuntzak behar guztiak asetu behar ditu; hizkuntzak izan behar du kulturaz jabe-tzeko oinarritzko tresna eta, jakina, katalan guztiek jakin behar dute hizkuntza hori katalana dela. Eredua bakarra da, beraz, nahiz eta atzerriko eskolen salbuespenik badugun: horiek orain arte atzerriarekin egindako hitzarmenen menpe zeuden, baita Kanpo Arazoetarako Ministerioaren menpe ere; orain, ordea, Kataluniako Generalitatearen eskutara pasako dira; hitzarmenetan katalana sartuko da. Gaur egun eskola horietan gehienek katalana ematen dute, baina pentsa ezazue hori 12 urtetik aurrera gertatzen dela. Haur horiek atzerriko hizkuntza batean murgilduta ikasten dute; etxean gaztelaniaz mintzo dira, gaztelania ezagutu egiten dute, eta 12 urte bete arte ez dute hizkuntza idatzia berregituratu: gaztelania, bai ziurtatuta dute; katalana, aldiz, batzuetan bakarrik, baina, gehienetan, bai.

Galdera: Horrek esan nahi du jatorriz erdaldunak direnak eskolaren bitartez katalanizatzen direla, izan ere, katalana da eskola hizkuntza; hau da, murgiltze-eredua jarraitzen dute.

J.A: Hurrek zortzi urte baino gutxiago dituztenean, eskolak murgiltze-programak eta arreta indibidualizatua eskatzen duten programak jartzen ditu martxan gaiari irtenbidea emateko asmoz. Hau ez da, inolaz ere, asmakizuna, ez da egosgogorkeria politikoa: herriaren eskaera eta exigen-

tzia da. Ikusiak ditut Santa Coloma de Gramaneteko emakumeak negar egiten 1968. urtean, neronek liburutegian ematen nituen katalanezko klaseetara beren haurrak ezin zitezkeelako sartu. Inmigrante asko eta asko dituen eta gaztelaniaz mintzo direnak gehiengoa diren San Vicent de Sors herrian, bestalde, ikusia dut soinean lan-jantzia zeraman langile mekaniko bat altxatu eta aita gisa eta bere semearen hezitzaile gisa, honako hau esaten: katalanez klaseak eman behar dira, izan ere, semeak etxean bere hizkuntza ikasi ezin duenez, irakats diezaiotela eskolan. Herri-soziolinguistika-maila oso altua, langilearena: haurrak ezin du bere hizkuntza etxean ikasi; beraz, eskolan irakats diezaiotela.

Dekretuek diote beti errespetatuko direla ikaslearen hizkuntza eskubide indibidualak; orduan, zer dira hizkuntza eskubideak? Izan ere, Hizkuntza Normalkuntzaren Legeak dio ikasleak eskubidea duela lehen ikasketak bere ohiko hizkuntzan jasotzeko; ez dio ama-hizkuntzan, ohiko hizkuntzan baizik. Halaber, gaineratzen du gurasoek edo tutorek eskubide hau aldarrika dezaketela. Honela egin ezean haurrak eskolako hizkuntzan —katalana, alegia— eskolatzen dira. Azken urte hauetan 89 pertsonak eskatu dute seme-alabak arreta indibidualizatua izan dezan ikasgelan. Egiten ez dena ikasgela paraleloak sortzea da.

Auzitegi Konstituzionalak juridikoki ontzat eman zuen <<elkartze linguistikoa>> izeneko hizkuntza eredu. Eskubide hori Hizkuntza Normalkuntzaren Legeak eta Konstituzioak onartzen dute; eta, Katalunian katalaneraz eskolatu nahi ez dituzten gurasoen haurrak, besteengandik banandu gabe, ikasgelan bertan izaten duen arreta indibidualizatu honek <<elkartze linguistikoa>> ereduaren izena du.

Irakaslearen eta ikastetxeko antolaketa orokorraren zeregina da honelako haurrei erantzutea.

Galdera: Horretarako guztirako, nola eramaten da aurrera irakasleen prestakuntza? Badago hizkuntza eskakizunik, kreditaziorik, titulaziorik...?

J.A: Hizkuntza ezagutzeko irakasle ugari prestatu dira, eta, une honetan, irakasle gehienek dute katalanezko hizkuntza kreditazioa. Garrantzi handiko kontua da eta uste dut urrats garrantzitsua eman behar dugula. Arazoa, hizkuntza ezagutzea izan da; orain, berriz, exijitu egiten da katalana jakitea, eta, horrek, irakasleari meritua ematen dio bai lekualdatze-lehiaketarako, bai zerbitzu-betekizunean sartzeko, bai oposaketetan parte hartzeko.

Galdera: Katalana meritua al da?

J.A: Katalanaren meritua oinarrizkoa da, baina bada lantzen eta modu pedagogikoan egiten joan behar garen gai garrantzitsu bat: hizkuntzaren erabilera baloratzea irakaskuntzan, hau da, betebeharra, titulazioa, puntuazioa eta katalanaren erabilera aintzat hartzea irakaskuntzan. Horrela, Katalunian, irakaskuntza-funtzionario izateko gaitasun akademikoa izateaz gain, aurrerapausoa ematen da hezkuntza-sistema normaltzeko

«1983. urtetik, jada, Hizkuntza Normalkuntzaren Legeak dioenez, lurraldeko berezko hizkuntza gisa erabiliko den katalana, hezkuntzan erabiliko den hizkuntza izango da. Sistema berrian erabat ezarri da katalanera Lehen Hezkuntzan: 2.397 eskola daude, eta horietako %68k katalanez irakasten dute; halaber, %14 eboluzio-prozesuan daude sartuta. Lehen Hezkuntzan dauden 681.000 ikasleetatik, %81 katalanez hezi da; gainerako %18k katalanez eta gaztelaniaz jasotzen dute heziketa, eta eskola elebidun ebolutiboak edo egonkorak dira. Horiek guztiak emaitza osoak dira. Sare pribatuari dagokionez, ikasleen %75k irakaskuntza katalanez jasotzen duen bitartean, sare publikoan %87ra igotzen da kopurua; beraz, orotara, ikasleen %81k ikasten du katalanez»

«Une honetantxe, irakasle gehienek dute katalanezko hizkuntz kreditazioa, Lehen Hezkuntzan sare pribatuan eta publikoan diharduten irakasle guztietatik %7 dago, soilik, kreditaziorik gabe»

proiektuaren eraikuntzan.

M.A: Une hauetan, Lehen Hezkuntzan sare pribatuan eta publikoan diharduten irakasle guztietatik %7 dago, soilik, kreditaziorik gabe.

Galdera: Eta nolakoa zen abiapuntua?

J.A: 1978. urtean kokatu behar dugu abiapuntua, Bartzelonako probintzian; esan beharra dago katalanen %75 Bartzelona hiriburua eta inguruetan bizi dela. 78.ean irakasleen %52k ez zekien katalanez, eta, gaur egun, Bartzelona hiriburuan dago kreditaziorik ez duen irakasle-kopuru handiena, %11, hain zuzen.

Galdera: Hizkuntza zerbitzurik eskaintzen al duzue irakaskuntzaren esparruan, normalizazio, prestakuntza, gurasoen aholkularitza eta argitalpen-mailan, esaterako?

J.A: Ekintza-plan bat argitaratzen dugu, eta, bertan, hezkuntza-elkarteari zuzendutako proiektu guztiak agertzen dira; ikasturtearen arabera, 7.000 edo 8.000 irakaslek parte hartzen duten aholkularitza-mintegietan; halaber, gurasoei zuzendutako ekintzak ere badaude, eta Bigarren Hezkuntzan hizkuntza prestakuntzako ikastaro bereziak egiten dira, bai eta ikastetxeko hizkuntza koordinatzaileei zuzendutako aholkularitza-saioak ere. Urtero, gainera, Bigarren Hezkuntzan dauden irakasleentzako katalanari eta Kataluniako kulturari buruzko tailerrak antolatzen dira. Hizkuntza proiektuen aholkularitza didaktiko eta koordinaziorako programa misto batean gaude murgilduta. Zentzu honetan, uste dut ahal dugun guztia egiten ari garela; eta, gainera, «Kataluniako eskolara» berandu datozen hurrenganako arreta izateari heldu diogu modu berrituan, aspaldian dihardugu lan honetan.

Galdera: Nortzuk dira «Kataluniako eskolara» datozen haurrak?

J.A: Kataluniara Estatu espainiarreko gainerako lurraldeetatik edo atzerriatik datozen 8 urtez gorako ikasleak sartzen dira multzo honetan; eta, beraz, ez dakite katalanez. Gerta daiteke soilik katalana ez ezagutzea, Hego Amerikatik edo espainolez hitz egiten den beste lurralde batzuetatik datozen haurrak direlako (hauek beraz katalana ez baina gaztelera ezagutzen dute), edo, litekeena da ere Kataluniako bi hizkuntza ofizialak ez ezagutzea; horrelakoetan, jatorria desberdina da: batetik, Europar Batasunetik datozenak ditugu (horiek, erro erromanikoa duen hizkuntza dabilte); bestetik, berriz, Afrika iparraldetik etorritako ikasle asko ditugu; 19.000-edo izango dira (eskolako ikasleen %2,5), eta gehienek zentro publikoetan ikasten dute.

Ez dugu lortu 50eko eta 60ko hamarkadan etorritako inmigrante guztiak katalan-identitatea duten hiritarrak izatea. Eta, orain, gainera, beste etorkin-uholdea datorkigu; beraz, Kataluniako eskola indartu egin behar da, eredu honek guztiontzako balio duela uste baitugu. Bizikidetzaren bidez, eskolaren eremuan gizartean guztiz integratzeko tresnak ezartzen dira. Gai honi dagokionez, beti uste izan dugu askoz ere errazagoa dela elkar-

banatzea ematea baino, izan ere, oso zaila da Kataluniako eskolara berandu datozen haurrei zure eskola ematea.

Galdera: Hori guztia proiektu espezifiko batzuen bitartez bideratzen duzue, haurrak, lehenengo aldiz, katalanen komunitatean sar eta integra daitezen lortzeko.

J.A: Hortxe kokatzen da hizkuntza erabileraren programa: proiektu txikia da; 7 eskola daude eta beren helburua haurrek katalana naturalki erabil dezaten lortzea da. Hona iristeko prozedura gisa, ikastetxeak koherentzia handia erakutsi behar du maila guztietan, eta, horretarako, oso kohesio-natuta dagoen hizkuntza proiektua aplikatu behar du; alegia, zentro honen sakondu egiten du arlo guztietan (klaustroa eta eskaintzen dituzten hizkuntza ereduak aldaezinak baitira), eta, horrela, hasi zuzendariagandik eta irakasle, heziketa fisikoko monitore, jangelako zainzaile eta eskola-garraioko laguntzaileganaino, guztiak kohesionatua egon behar du; azken batean, haurrak katalanez bizi daitezen lortu nahi baita.

Galdera: Zein dira, orduan, ikastetxeko hizkuntza normalkuntzarako proiektuan hizkuntza planaren oinarriak?

M.A: Ikastetxeko Hizkuntza Proiektuaren (IHP) oinarriak, azken aldian, Lehen Hezkuntzan 1983.etik egiten ari denaren egokitzapena besterik ez dira izan; ikusi zenez, horixe zen era bakarra haur guztiak —biztanle gehienak gaztelaniaz mintzo ziren tokietako haurrak, hain zuzen— Kataluniako eskolaren ereduari integra zitezen eta guztientzako eredu bakarra eskaini genezan. Murgiltze-eredua planteatu zitzaiezen Lehen Hezkuntzako ikastetxeei, eta berehala hasi ziren IHPn lanean, behar-beharrezkoa ikusten baitzen. 83-84. ikasturtean hasi zen IHPa lantzen Lehen Hezkuntzan; gero, LODEk hori ahalbidetu zuen ikastetxeei Hezkuntza Proiektua (HP) egin ahal izateko autonomia eskaintzerakoan, eta, Hezkuntza Proiektu horrek, hain zuzen, aipatu IHPri bide ematen zion ikastetxearen alderdi guztietan eragina izan zezan. Bigarren Hezkuntzan, berriz, hizkuntza normalkuntzarako proiektuekin hasi ziren, bertan ez baitzen ikusten Lehen Hezkuntzan zegoen beharra hizkuntzekin gertatzen zenaren inguruan eta zuten hierarkiaren gainean beraien artean hitz egiteko. Bigarren Hezkuntzara iristen ziren haurrek bazekiten dagoeneko katalanez bai murgiltze-ereduak zeudelako edo bai eskolan irakasgai gisa izan zutelako. Hizkuntza normalkuntzarako proiektuari ikastetxean katalanaren erabilerara sustatuz ekin zitzaion; katalanez emandako irakasgaiak gero eta gehiago izan zitezen bultzatu eta pixkanaka-pixkanaka ikastetxean komunikazio bideratzeko hizkuntza izan zedin. Hezkuntza-sistema berriarekin, IHP (arautua, jada, Generalitateko dekretuen bidez) hezkuntza-proiektuaren zati da. Ikastetxe publiko guztiek derrigorrez egin behar dute HP bat; ikastetxe pribatuek, berriz, aukera hori jaso dezakeen proiektu propio bat egiteko obligazioa dute, eta, beraz, hor sartu HP. Horrenbestez, IHPn zahaztua, arautua eta espezifikatua geratzen da katalanaren erabilerara; baita Aran ibarreko aranesa ere, bertan beste hizkuntza aldaera bat dugu-eta, 6.000 pertsonak komunikatzeko hitz egiten duten hizkunt-

«Hizkuntza normalkuntzarako proiektuari ikastetxean katalanaren erabilerara sustatuz ekin zitzaion; katalanez emandako irakasgaiak gero eta gehiago izan zitezen bultzatu eta pixkanaka-pixkanaka ikastetxean komunikazioa bideratzeko hizkuntza izan zedin»

«Katalana hizkuntza minorizatuen artean osasuntsuen dagoena dela diogu. Une honetan katalana ez dago geldialdi-egoera batean, baina ez du halako indarrik ere eta horregatik espero dut orain Hizkuntz Normalkuntzarako Lege berria martxan ipintzea, horrela, 14 urte honetako akatsak konpontzeko aukera izango da eta»

za aldaera, alegia. IHPn espainieraren eta atzerriko hizkuntzen irakaskuntza eta ikaskuntza biltzen da, baita ondoren honen guztiaren egokitzapena ikastetxeko hizkuntza errealitateari; egokitzeak, ordea, zera esan nahi du: katalanaren ohiko erabilerara iristeko zentroek bide desberdinak urratuko dituztela, izan ere, errealitate soziolinguistikoa desberdina izango da.

Galdera: Amaitzeko, zein izango litzateke katalanaren normalkuntzaren egungo egoera?

J.A: Soziolinguista garenok katalana hizkuntza minorizatuen artean osasuntsuen dagoena dela diogu. Egia esan, benetan txarra da, oro har, hizkuntza minorizatuen osasuna. Katalanak, dena dela, aurrerapauso handiak eman ditu herritar guztien borondateari esker: eta, ez, soilik, jatorrizko katalanei esker, Kataluniara inmigratu duten herritarrek ere laguntza handia eskaini dute. Egiazta dezakegun gertaera da hauxe, baina proiektu guztiak bezalaxe, gora-beherak izaten ditu. Nire ustez, une honetan katalana ez dago geldialdi-egoera batean, baina ez du halako indarrik ere; ez administrazioak eta gizarteak egin behar dutena egiten ez dutelako, kontuan hartu ez diren faktore batzuk egon direlako baizik, murgiltze-programaren gainean sortutako gatazka faltsua, esamesa ugari sortu ziren eta sasiarrazoiez hornitutako hitzaldiak. Gatazka horrek bi zergati izan zituen: batetik, badirudi bazegoela urrunegi joan gineneko halako kezka bat; nire iritzia da hauxe, baina ez dut uste oker nabilenik; bestetik, berriz, ahorik zabaldu ez zutenak ditugu, ez errespetuagatik, guztiz bidezkoa den eta Konstituzioak berak onartutako kataluniarren eskubidea den kontu honetan nabarmentzeko zuten beldurragatik baizik. Gauzak argitu behar direneko egoera batean aurkitzen gara eta horregatik espero dut orain Hizkuntza Normalkuntzarako Lege berria martxan ipintzea, horrela, 14 urte honetako akatsak konpontzeko aukera izango da eta. Honetan ere argi eta garbi agertuko da katalana dela katalanen jatorrizko hizkuntza, eta inongo bildur eta lotsarik gabe Europako hizkuntzen artean egotea merezi duela; gainera, kulturaren zati garrantzitsua denez, guztirako baliagarri izan behar duela pentsatu behar dugu.

M.A: Aipatzekoa da polemika eragin zuen arrazoietakoa bat Normalkuntzarako Legearen artikulua zenbait Auzitegi Konstituzionalera pasa zirenekoa izan zela. Artikuluak Auzitegi Konstituzionalera eraman zirenetik eta Auzitegi Konstituzionala legearen alde agertu zen arte, geldialdi-egoera batean sartu ginen.

J.A: Zuhurtzia-aldia izan zen hura, bagenekien arrazoi genuela, baina inoiz ez da gehiegikeriaz jokatu, ez horixe, alderantziz baizik.